

## Errentagarritasuna eta berrikuntza kirol-kudeaketan gaiari buruzko konferentzia EZFan

2008/01/18

ASPEko gerente eta Euskal Kirol Kontseiluko kide Patxi Mutiloak jardunaldi batean parte hartuko du bihar, hilaren 17an, ostegunean, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak antolatutata. Mutiloak kirol-taldeen kudeaketari buruz hitz egingo du, "Taldetik enpresara: kudeaketa profesionalizatzetik egite profesionalaren kudeaketara / Del club a la empresa: de la profesionalización de la gestión a la gestión de lo profesional" gaia landuz.

Jardunaldia 18:00etan hasiko da Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultatean, Oñatiko Campusean, eta bertan, Mutiloak ez ezik, Avento kirol-kontsultoriaren sortzaile eta gerente Juan Manuel Muruak ere parte hartuko du.

### Kirol-kudeaketa "aurreratua"

Patxi Mutiloak jardunaldian kirol-kudeaketa aurreratuz hitz egingo du. Kudeaketa hori berrikuntzara dago bideratuta eta errentagarritasunean oinarritzen da. Bezeroari produktu eta zerbitzu berri erakargarriak eskaintzean datza laburbilduz. "Kirol-kudeaketaren eredu hori pilota profesionaleko enpresetan egiten dena da, eta "Made in Euskadi" da, ASPEko gerentearen hitzetan.

Mutiloaren ustez, "taldeek zerbitzuaren eta bezeroaren alde apustu egitea segurua da, eta orain arte apustu hori serio egin duenik ez da damutu. Hala ere, baina bat dago, baina izugarri bat, kirol-kudeaketa interesatzen zaien pertsonentzat. Hauxe da baina hori: horrek talde askoren kudeaketa profesionalizatzea dakar".

Mutiloa kirol-munduan ospe handiko pertsona da, eta Futbol Profesionaleko Ligarako Batzorde Exekutiboko kidea izan da, eta baita SD Eibar SADko gerentea ere, kirol-taldea Kirol Sozietate Anonimo bihurtzeaz arduratu zena.

